



ATV  
18962



M- 8787- / R- 36320

ATV

18.962

# Aita San Franziskoren

## irugarrengoenetzat

## ELBIZ - KANTAK



ZARAUZ'en

:: Aita Prantziskotarren Konbentuan ::

1919

*Imp:imatur:*  
*Victoriæ, 29 Octobris 1918.*  
*Leopoldus, Epus. Victoriensis.*

---

Zoñnotza. — Jaungoiko - Zale'ren irarkolea.

# Sakramentu gustiz Santuari Abestlak

## KRISTO JESUS GURE JAUNARI

Goratu dezagun elkar arturik  
Gure Jaun laztana,  
Kristo Eroslea, Hostian dagoana,  
Gur dezagun apal auzpezturik.

Gora ta gora Jesus,  
Zeru ta lurren Jaun eta Jabea,  
Aintza ta gora Zu, gure Errege,  
Maitasuna Zuri Jaun maitea.

## OGI ZERUTIK

*Ogi zerutik etorria  
Zu zera gure poz gustia.*

1. Bildots Santua  
ara emen,  
munduko gaitzak  
kentzearren,  
Sagrarioan  
nun dagoen,  
lurra zerauz  
bat egiten.

2. Misteriorik  
aundieta,  
Jaungoikoaren  
oroipena,  
gozotasunik  
gozoena,  
gizonentzako  
dagoena.

3. Gauza gustien  
Egillea,  
zeru ta lurren  
Erregia,  
gure artean  
bitezka,  
¡zer zoriona  
dan gurea!

4. Etzaitut begiz  
nik ikusten,  
baña bai fedez  
det ziñisten,  
Sakramentuan  
nola zauden,  
¡Jesus laztana!  
gu maitatzen.

---

OARRA.—Liburucho ontako izneurtuentzat musika  
orain argitaratu degun musikadun liburuchuan **dago**.  
An begiratu.

5. Maitagarria  
maite zaitut,  
enork ez maitatu  
maite Jesus?  
maitatu eza  
nago damuz,  
ta iraindua  
ain pekatuz.

6. ¡Ai milla biotz  
banituzke,  
danak zuretzat  
nai nituzke!  
¡Ai Jesusekin  
banintzake,  
maitez urtua  
banengoke!

## OR ZAUDE JESUS

OR ZAUDE JESUS  
ALDAREAN  
GORDE NAI ZAITUT  
BIOTZEAN.

1. Zeruetako  
Jaun aundia  
egiñik gure  
janaria,  
¡o maitetasun  
ugaria!  
gizonarentzat  
geyegia.

2. Ondasun danen  
turria  
Iltzeko gure  
Egarria.  
O misterio  
¡Pozgarria!  
Zeru ta lurren  
Miraria.

3. Ondo - gabeko  
Ichasua,  
zerutik jechi  
Zeran sua.  
¡O amorio  
Ain osua,  
Animarentzat  
Chit gozua!

4. Zer moduz, Jauna,  
Guk merezi  
Zugandik degu  
Ainbat grazi?  
Zurekin guk nai  
Dégu bizi  
Eta Zerua  
Irabazi.

## Jesusen Biotz maitagarriari abestiak

EZ DA ZERURAKO BESTE BIDERIK

1. EZ DA ZERURAKO Pekatariantzat  
BESTE BIDERIK, Ichi gaberik.  
JESUSEN BIOTZA  
BEZELAKORIK.

*Jesus maite maite maitea,  
izan beti gure jabea.*

2. Goazen beti danok,  
Goazen emendik,  
Zerura gaiteza  
Biotz Santutik.

3. Jesusen Biotza  
Begiraturik,  
Guretzat ez dauka  
Erruki baizik.

4. Biotz ori dago  
Beti zabalik,

5. Nai dezu kristaua,  
Sartu bertatik?  
Zerurako ez dago  
Bide oberik.

6. Zeru ta lurrean  
Ez da biotzik,  
Jesusenak ainbat  
Maite gaitunik.

7. ¡O Jesus maitea!  
Ar bitza gaurtik  
Guzion biotzak  
Bereagatik.

8. Or eduki bitza  
Bere aldetik,  
Zeru eder ortan  
Ondo gorderik.

### ¡O BIOTZ SANTU MAITATIA!

*Jesus'en Biotz  
maitatia,  
Zu gure Errege  
Jaun aundia.*

1. Goazen kristauak  
nola Zeruan  
ala lurrean  
da agurgarri,  
goazen, guk ere  
adora zagun  
ta alaba zagun  
Biotz ori.

2. Zu zera Jesus  
Jainko maitea  
nere Jabea

beti zera;  
ni natorkizu  
naigabeturik  
oso mindurik  
zure arrera.  
3. Atoz gugana  
Jesus maitea  
zure agindua  
betetzera,  
zu zera gure  
Errege - Jabe,

bizi zu gabe  
ezin gera.

4. Adizkidetzat  
zugandutzena  
zure biotzera  
natorkizu;  
artu nazazu  
barren orretan  
ta eundi danetan  
euki nazu.

## AGUR, JESUSEN BIOTZ GOZOA

Agur, Jesusen Biotz gozoa,  
Euzkal biotzen zoragarria,  
Sartu ta gorde orche betiko  
Seme zintzo ta maitalariak.

Judean zenukan erri autuak  
Kurtzean josten zinduzanean,  
Zure begiak eta biotza  
Ezar zenduzen Euzkalerrian.

## GURE BIOTZEN JABE

*Gure biotzen jabe  
Zu izan zaitean,  
Artu gaitzazu Jauna,!  
Zure Biotzean.*

1

Jesus onaren Biotz  
Chit maitatzallea,  
Zu izan zaite gure  
Jaun eta Jabea:  
Zugan bakarrik dago  
Zorion betea,  
Gloria zeruetan,  
Lurrean pakea.

3

Aberats eta pobre  
Eta jakintsuak,  
Errege, nagusi ta  
Aundizki altsuak  
Irazeki ditzala  
Amorezko suak,  
Adoratu zaitzala  
Lurbira osuak.

2

Sutu gaitzazu zure  
Maitetasunean,  
Maite zaitzagun beti  
Guziok batean:  
Ez dedilla gizonik  
gelditu lurrean,  
Zure maitasun gabe  
Bere Biotzean.

4

Biotzetik eskatzen  
Deutzugun asmua,  
Garaiturik gelditu  
Dedilla infernua;  
Jarri ezazu gugan  
Maitezko tronua,  
Betorkigu betiko  
Zure erreinua.

## **Jesusen Biotz maitagarriari Erreinuko abestia**

Atoz gure Jesusen jo Biotz laztana!  
Atoz zure maitale diradenengana  
Atoz gure Jesusen jo Biotz laztana!  
Atoz zure maitale diradenengana,  
Atoz zure maitale diradenengana.

Atoz, guk zurekin nai degu  
mundu onetan bizi, izateko  
gero zeruan zure maiteak,  
zeruan zure maiteak, zeruan...

## **Gora gure Jaun eta Jabea**

1. Jesusen Biotza  
Dago suturik.  
Maitasuna agertzen  
Alde guzitik.

*Gora, gure Jaun eta Jabea  
Gora, gora Jesus maitea.*

2. Nun aurkituko da  
Biotz gogorrik,  
Biotz onen suan  
Urtuko ez danik?  
3. ¡O Jesus! esaten

Dizugu pozez  
Zureak gerala  
Biotz - biotzez.

4. Biotz maitagarri  
Biotz gozoa  
Zurea izan bedi  
Lurbira osoa.  
5. Beti izango zera  
Gure Jabea,  
Gu beti zureak  
¡Jesus maitea!

## **NERE JABE ZERAN JESUS MAITEA**

1. Nere jabe zeran  
Jesus maitea,  
Benaz nai det izan  
Beti zurea.

2. Intz gozoa dute  
Maite loreak,  
Zure Biotz ori  
Maite nereak.

2. Nigandik ez, arren,  
Iñoz alde egin  
¡Iñoz ere ez, Jesus!  
galdu ez nadin.

3. ¡O Jesus! esaten  
Dizugu pozez  
Zureak gerala  
Biotz-biotzez.

4. Biotz maitagarri  
Biotz gozoa,  
Zurea izan bedi  
Lurbira osoa.

5. Beti izango zera  
Gure Jabea,  
Gu beti zureak  
¡Jesus maitea!

### BIOTZA JARTZEN DEZUNA ALAI

Biotza jartzen  
Dezuna alai,  
Ez det zu baño  
Besterik nai.  
Ichasora dijoaz  
Ur guztiak  
Baita Jesusengana  
Nire usteak.

### KRISTO GURE ERREGE

*Kristo gure Errege  
Adora dezagun,  
Zeru - lurren Jabe  
Aitortu dezagun*

1

Fede bizi baten  
Danok ernai,  
Zureak gera gu  
O Jesus! bai,  
Ez beste jaberik,  
Ez degu nai.

2

Jesusen etsayak  
Betoz noiz nai,  
Armak eskuetan  
Gauden ernai  
Jesusekin goazen  
Goazen alai.

3

Egiz zuk badezu  
 Jesus maite,  
 Beraren Legean  
 Ibil - zaite,  
 Bide charretatik  
 Alde - alde.

4

Jarri bedi Jesus  
 Biotzeta:  
 Bereak bagera  
 Gu benetan  
 Ikusiko gera  
 Zeruetan.

5

Jesusen izena  
 Gaur kantatu  
 Beraren gloria  
 Bai zabaldu,  
 Erri guzietan  
 ¡Gora Jesus!

## **AMA MARIARI ABESTIAK**

### **Zera zu Jesusen Ama gozoa**

1. Zera zu Jesusen  
 Ama gozoa,  
 Beti gure maite  
 Biotzekoa.

*Gora, gora gure Erregiña,  
 Gora, gora gure Erregina.*

2. Egin zaitu Jaunak  
 Ama guretzat  
 Zuk ezagun gaitzazu  
 Beti semetzat. *Gora...*

3. Zuregana gatoz  
 Erbestetuak,  
 Pozaren kabira  
 Naigabetuak. *Gora...*

4. Jakiñik zerala  
 Errukitsua  
 Zabaltzen da gure  
 Biotz gaisua. *Gora...*

5. Zeru ta lurrean  
 Orain ta beti  
 Zure biotz ona  
 Goratu bedi. *Gora...*

6. Begira zaiguzu  
 Ama zerutik  
 Iñoi ere ez utzi  
 Gu zure eskutik. *Gora...*

7. Ama, zuregana  
 Artu gaitzazu  
 Betiko zureak  
 Izan nai degu. *Gora...*

## GOIZEKO IZARRA EZ DA AIN EDERRA

1

Goizeko izarra  
Ez da ain ederra,  
Nola dan, Maria,  
Zure sorrera.

3

Guztia ederra  
Zera, Maria,  
Sortzetik zerala  
Orban-gabia

2

Graziaz zu zaitu  
Jaunak apaindu,  
Zeruak dituzu  
Ederrez gaindu.

4

Graziazko ichaso  
Aitzen ez dana  
Guretzat zera Zu,  
Ama laztana.

## AGUR, JESUSEN AMA

1. Agur Jesusen Ama,  
Birjiña maitea,  
Agur ichasoko izar  
Disdiratzallea.  
Agur zeruko eguzki  
Atsegín betea.  
Agur pekatarien  
Kaya ta estalpea.

3. Agur, gure poza ta  
Atsegin guztia,  
Atsekabe danetan  
Gozakai eztia;  
Agur Birjiña eder  
Ta zoragarria,  
Arzazu biotza ta  
Torizu bizia.

2. Agur gizonen Ama  
Zeruko Erregiña,  
Ama gozo chit maite  
Amorezko pifia!  
Zugandik juatia  
Gauza da samiña,  
Agur nere biotzeko  
Poz eta atsegíña.

4. Baña zugandik alde  
Biotzak ezin du,  
Zuregana dijoa,  
Zugan bizi nai du  
Birjiñ bardin-gabea  
Bedeinka nazazu  
**Agur, Ama nerea,**  
Agur, agur, agur.

## AMA MAITE MARIA, EGIGUZU LAGUN

*Ama maite Marija  
egiguzu lagun  
Zure bitartez Jesus  
ikusi dezagun.*

1. Aingerutar lirio  
estimagarria  
usain gozodun lore  
zerutik jechia;  
gorde gaitzazu Ama  
gustiz maitatia  
ez dezagun zikindu  
birtute garbia.

2. Zure koro ederrak  
ugaritutzeko,  
arren, eskatzen dizut  
zuk lagundutzeko.  
Atozte bai, gazteak  
zeruratutzeko,  
Birjiña deyez dago,  
berana joateko.

## POZEZ KANTARI GAUDE

*Pozez kantari gaude  
Gu zure oñetan,  
Biotza isioturik  
Amore garretan.  
Bada maite zaitugu  
Gustiok benetan,  
Jartu gaitzazu Ama,  
Gero zeruetan.*

1. Zeru-lurrak zaituzte  
Deitzen Erregiña,  
Lirio zuri eder,  
Birjiñen - Birjiña  
Gozatu zazn-gure  
Bizitza samiña,  
Erbestetu gaxoen  
Ama atsegiña.

2. Zuri begiraturik,  
Ama chit eztia  
Emen ikusten degu  
Zeru pozgarria.  
Zuri eskintzen gaude  
Gu geran guztia;  
Arzazu, bai, laztanetz  
Gure eskeñia.

## AGUR, AGUR, AGUR MARIA

*Agur, agur, agur Maria  
Agur, agur guztiz garbia.*

1. Zeru eta munduak  
Zeurekin pozturik  
Kanta - kantari daude  
Amorez suturik.
2. Maria, sortu ziñan  
Orban-gabekoa  
Santidade guztiaz  
Apaindutakoa.
3. Oñazpian lerturik  
Luzbeli burua,  
Garaitu dezu, Ama,  
Betiko infernua.
4. Zeru eta munduen  
Poz eta atsegina,  
Zera biotz guztien  
Jabe ta Erregina.
5. Gure etsaiak dabilz  
Gu galdu naiean  
Bañan Mariak ditu  
Lertuko oñazpian.
6. Pekatuan bein ere  
Ez gaiten erori  
Laguntza-eske gaude  
¡Oh Maria! Zuri.
7. Zera Jesusen urren  
Maitagarriena,  
Zeru eta lurrean  
Zoragarriena.
8. Maite gorderik, zaude  
Gure biotzetan,  
Artu gaitzazu, Ama,  
Gero Zeruetan,

## GOAZEN ARANTZAZURA

*Goazen Arantzazura  
Mariarengana.  
Goazen, bai, eskeintzera  
Biotz eder bana.*

1. Izar bat agertu da  
guztiz pozgarria,  
Ara nola dagoan  
Arantzan jarria  
Poztu, bada, bai poztu  
¡O Euzkal - Erria!  
Adi ezazu kontuz  
Dakarren berria.
2. Ikusirik zerutik  
gure estutasunak  
Pozkidatu nai gaitu  
Birjiña Mariak,  
Pozturik bada justu  
Ta pekatariak  
Arantzazura zuzen  
Ditzagun begiak.

3. Illargia Zeruan  
Duenak oñetan  
Dris-dris egiten digu  
Aloña mendian:  
Biotzean poza ta  
Kantak mingañean  
Onra dezagun Ama  
Au alegiñean.

4. Noeren kuchatikan  
Irten zan usua,  
Atzera eramanaz  
Berri paketsua,  
Zu zera gaitz guztien  
Sendagai osua  
Zu zera bai, Maria,  
Ama chit gozua.

### DONOSTIATIK GATOZ

*Donostiatik gatoz*  
*Gaur Arantzazura*  
*Mariaren aurrean*  
*Otoi egitera*  
*Fedea sendotu ta*  
*Burnia bezela*  
*Etsayak botatzeko*  
*Danak, danak bera.*

1. Inpernua zapaldu  
Mundu txarra astindu  
Luziferren lagunak  
Betiko garaitu;  
Jesus eta Mariak  
Gaitzela gu zaindu,  
Euzkal - Errietako  
Semeak nai degu

2. Ama, ama maitea  
gaurko egunean  
gure begira dago  
Arantza - gañean  
Goazen Arantzondora  
Goazen arin danok  
Mariaren eskuan  
Jartzera biotzok.

*Agur, agur, agur Maria,*  
*Agur, agur guztiz garbia*

3. Maite zaituzte, Ama,  
Kristau errietan  
Toki eder bat dezu  
Beren biotzetan,  
Baña ongi dakizu  
Gogoz ta benetan  
Maitatzen zaituztela  
Euzkal - Errietan. *Agur...*

## ARANTZAZUKO AMA BIRJIÑA

*Arantzazuko Ama Birjiña,*  
*Zeruko Erregeñ aundia,*  
*Kendu pekatu danen arantzak,*  
*Eman Jaunaren grazia.*

- |                            |                                   |
|----------------------------|-----------------------------------|
| 1. Agur zeruen edertasuna, | 2. Zu zeru-lurren malla jarritzat |
| Arrosa zuri-gorria,        | Zorionean sortua,                 |
| Apaindurien lore bikañez   | Mundu onetan ekaitz-artelean      |
| Jaungoiko berak jantzia,   | Gabiltzan danon portua,           |
| Arantzartean arantza gabe  | Zu gure Ama, gure bizitza,        |
| Arantzaz gora jaikia,      | Gure biotzen gar sua.             |
| Agur Birjiña graziazkoa    | Zu aingeruen zoragarria,          |
| Grazi beraren jargoia.     | Zu santu danen zerua.             |

*Arantzazuko Ama Birjiña...*

3

Ortikan zaude Euzkalerriko  
Seme gaixoei begira,  
Gaur zure seme oyen kontrako  
Etsayak naiko bai-dira,  
Zugana gatoz, Ama maitea  
Zure estalpe argira,  
Isuri zazu zure indarra  
Euzkal - biotzen erdira.

## BENE - BENETAN MAITE ZAITUGUN

**Bene-benetan maite zaitugun  
Ama Birjina Maria,  
Gorde zuk beti feder garbian  
Zure Euzkaldun - Erria.**

1. Arantzazuko Birjina eder  
Ama gozo chit laztana,  
Arantzazutik Euzkal - erriko  
Kontu artzalle zaudena,  
Emenche gatoz gaur euzkaldunak  
Elkar arturik zugana,  
Amoriozko begiratu bat  
Eman dezazun gugana. *Bene-b.*

2. Gipuzkoarrak autu zaitugu  
geure zaindari izateko,  
Aita Santuak izenda zaitu  
gu ongi jagotutzeko  
Gipuztar danok chit pozik gaude  
Zure esanera egoteko,  
Aldanik geyen zure izena  
Aintzatu ta goratzeko. *Bene-b...*

3. Aginte danak zureak dira  
Zeruan eta lurrean,  
Satanas eta bereak bere  
Beti dauzkazu mendean,  
Artu gaitzazu jarren! betiko  
Zure babes gozopean  
Guzti - guztiok bizi ~~g~~atezan  
Jesus onaren Legean. *Bene-b...*

### AGUR IZAR EDER

1. Agur izar eder  
Birjiña maitea,  
Agur Ama gozo  
Zeruko atea.
2. Aingeruak zuri  
Berri onak emanik  
Etorri zitzaigun  
Pakea zerutik.
3. Lotuak azkatu,  
Itsuak argitu,  
On guztiak eman  
Gaitz guztiak kendu.
4. Zaite Ama bigun  
Guretzako izan  
Gure erreguak  
Jaunak entzun ditzan
5. Dontzella bikaña  
Egiguzu argi  
Izan gaitezet gū  
Umil eta garbi.
6. Bizibide on bat  
Dizugu eskaizen  
Jesus ikusteko  
Zurekin gozatzen.
7. Gloria Aitari,  
Eta Semeari  
Baita Goteunari  
Orain eta beti. **AMEN.**

### Gipuzkoa 'ko Zaindariari

Etsaien atzapar bildurrik ez degu  
Zeruko Bakaldun ederra badegu  
Gipuzkoar geranok gure Zaindari.  
¡Ongi etorria Zaindari laztana  
Arantza gañean agertu ziñana!  
Zorion guztiak badatoz gugana  
Gugana zerutik etortzian zu,  
Ama zeralako maite gaituzuna,  
¡O Ama biguna,  
Zaindu gaitzazu!

Galdutzeko arriskuan  
Bizi geran ezkero,  
Nai genduke zure eskuan  
Egon orain ta gero.

Zure babes pozgarria  
Utzi gabe bein ere,  
Gipuzkoar Zaindaria,  
Maite gaituzun Maria,  
Maite zaitugu ere.

## A U R R E R A

Bi aldiz

¡Aurrera! kristau fedez beteak  
¡Aurrera! Mariarengana,  
¡Aurrera! bai, gaur eskeintzera  
Danok biotz eder bana.

Begira an gure Ama,  
Begira zeñ ederra:  
Ez da jechi Ama oberik  
Zeru goitik lurrera.

Gure Ama biotzekua  
Munduaren erdian  
Erregiñ koroyatua  
Ikusi artian,  
Gerra beti, gerra bizia  
Bere etsai gogorrakin,  
Su ta gar badatoz ere  
Inpernu beltzakin.

Bi aldiz

Zu izango zera, zu izango zera  
Ama ¡bai!  
Euzkaldunen Erregiña,  
Gure erriyen atsegiña,  
Beste Amarik ez degu nai.

Birritan.

Entzun beza, entzun beza  
Deabruak  
Zure oin azpian zapalduak:  
GOGOR BETI,  
GOGOR ETSIAIARI  
¡GORA MARIARI!  
¡Bai!

Birritan.

¡Aurrera! bai, ta ¡aurrera! beti  
Kristau euzkaldun fedez sutua.  
¡Aurrera! bai, gurekin dator  
Ama Birjiña garbi sortua.

### AITA SAN JOSERI

*Lagun zaiguzu Jose  
Lurreko bizitzan,  
Eta askoz geyago  
Berriż eriotzan.*

- |   |   |
|---|---|
| 1. Birtutez apaindua<br>Doatsua oso,<br>Mallarik goyenera<br>Zaitu Jaunak jaso.       | 6. Bizitzan Jesusi ta<br>Amari laguntzen,<br>Eriotzan zeruan<br>Sartu ziñan zuzen.    |
| 2. Bere Amaren lagun<br>Eta senar gozo<br>Jesusek Zu nai zaitu<br>Beretzat guraso.    | 7. Guri lagundutze<br>Jaunak jarri zaitu<br>Arrisku guztietan<br>Zuk gaitzazu zaindu. |
| 3. Zeruan aingeruak<br>Dutena Erregiñ,<br>Emen lurrean zure<br>Emazte zan egin.       | 8. Gure bizitza emen<br>Dediñeán aitu,<br>Zurekin gaitezela<br>Zeruan alaitu.         |
| 4. Zeru ederra bera<br>Dan bezain atsegin<br>Zaretzat zan Nazaret<br>Ama Semeakin.    | 9. Jesus eta Maria<br>Zu il ziñanean<br>Laguntzen egon ziran<br>Jose, zure aldean.    |
| 5. Kanpoz lanean eta<br>Barruz erregutzen<br>Jainkozko gizona da<br>Centro ezagutzen. | 10 Atoz bai laguntzera<br>Zori ain larrian<br>Il gaitezen gu ere<br>Jaunaren pakean.  |

## Franzisko Aitalen Gartsuari Abestiak

Franzisko gure jagola maitea  
Doakigu aurretik:  
Goazen gu ere, Aitaren atzetik,  
Kordoyagaz gerriak loturik.  
¡Aurrera anayak! bildurrik gabe,  
Aitari begira:  
Berak gamazki zuzen bidetik,  
Berak gamazki danok zerura.

1. Fede bizi-garbia,  
Ekanduak onak  
Eleizeari zintzo  
Egin bere esanak:  
Alan bizi diranak  
¡Ai zein kristau onak  
Alan bear du bizi  
Irugarrengoa:
2. Jan-edanan bezela  
Berdin soñan ere,  
Neba-arrebak neurrian  
Bizi bear dute  
Beartsu, nai aberats,  
Arrokeri gabe,  
Izan daitezen gero  
Zeruaren jabe.
3. Utzirik jolas zikiñ  
Ta edozeñ arrisku,  
Franziskoren semeak  
Bizi bear degu.  
Mundu guztia geuri  
Begira dagoku:  
Izan gaitezen, bada,  
Guztien ispilla.
4. Aita Santuak dio,  
Bere icharopena,  
Gaurko gaitzen artean  
Dala gure Ordena.  
«Emenche, - diño berak,  
Dauka osamena  
Mundu gaisotu onek  
Bere gaitz danena».
5. Kordoi-eskapulario  
Santuak soñean,  
Franziskoren asnasa  
Beroa barruan:  
Irugarren Ordenak,  
Onela munduan,  
¿Zer on egingo eztu  
Gaiztoen alboan?
6. Begira bai kristauak  
Kristoren soldautza,  
Onduko dizutena  
Benetan bizitza.  
Nai badezute, bada,  
On izan benetan,  
Sartu dan-danok jarren!  
Soldautza onetan.

## Zure Jaunaganako maitasuna

*Zure Jaunaganako maitasuna  
Bidaldo zerutik,  
Aita deuna zerala gure lagun,  
Berotzen biotz epel dagoana;  
Sututa biotzak, maita dezagun  
Zeruko Jaun ona;  
Eraman ditzagun oker daudenak  
Zeruan dagon Aitarengana.*

1. Atoz Aita Franzisko  
Guri laguntzera,  
Atoz arren aingeru  
On baten antzera;  
Mesede au gatoz gaur  
Zuri eskatzera,  
Bada gure esperantza  
Guzia zu zera. — *Zure...*

2. Luzbelek galdu zuan  
Zeruko jargoian,  
Serafiñen artian  
Zaudet zerugoian;  
Lurrean egin dezun  
Bizitz zerukoian  
Merezitako perlak  
Dauzkazu koroian. *Zure...*

3. Legoi amorratu bat  
Dabilen moduan,  
Satanas dabilkigu  
Beti inguruan;  
Iruntzitzeko uste  
Ez degun orduan,  
Argatik nai zaitugu  
Zu gure onduan. *Zure...*

4. Gure Aita Franzisko  
Gudari abilla,  
Alde guzietatik  
Etsaiaren billa;  
Bakarrik asko dala  
Zatitzeko milla  
Zeruan du Luzbelek  
Galdu zuan silla. *Zure...*

5. Zuri jarraitzearen  
Al danik ondoen,  
Irugarren Ordena  
Ona non dagoen;  
Nora-nai joateko  
Prest zure ondoren  
Begira Aita, nola  
*Danok pozik gauden. Zure.*

6. Zerutik dirudizu  
Jechia lurrera,  
Infernua guda  
Gogor egitera;  
Etsaiak garaituaz  
Aurrera ta aurrera,  
Eldu artian glori  
*Danen gallurrera. Zure...*

7. Zure semeak dira  
Munduan ikusten,  
Zerurako bidea  
Nun nai erakusten;  
Etsaiari paketan  
Eztiote uzten  
¡Ai zenbat pekatari  
*Salbatzen dituzten Zure.*

8. Aita Franzisko degu  
Gure jeneralia,  
Gu bere ejerzitu  
Aundi ta leyala;  
Bera iru Ordenen  
Gidaria dala  
Gudara joango gera  
*Legoia bezela. Zure...*

## Aita Franzisko zugana gatoz

Aita Franzisko zugana gatoz  
Laguntza billa lurrian,  
Etsai artean gabiltzalako  
Galtzeko zori larrian,  
Arren, iguzu zure laguntza  
Guk bear degun neurrian,  
Zure semeak zaitugulako  
Zaindari zeru bidian.

## FRANZISKO ZIÑANEAN

1. Franziskoziñanean  
Mundura agertu,  
Jesusek bere antzera  
Zinduzen egin zu  
Eta bere amorioz  
Ziñan zu zauritu.

*Franzisko, gure Jesus  
Nai degu maitatu.*

2. Jesusen antzekorik  
Iñor bada sortu,  
Franzisko ukulluan  
Zan jayo ta agertu,  
Geroztik beti zion  
Jesusi jarraitu.

*Franzisko...*

3. Gaztetako urteak  
Munduan pasaurik,  
Mundu lasai onezaz

Ongi jabeturik,  
Arrisku oietatik  
Ziñan zu aldendu.

*Franzisko...*

4. Zuk Jesus maitatutzen  
Zenduan ikasi  
Serafiñen bizitza,  
Bertatikan asi,  
Oien amorioa  
Ziñion zuk artu.

*Franzisko...*

5. Pizturik biotzetan  
Jesusen fedea  
Erakusten zenduan  
Jaunaren Legea  
Anima asko zenduzen  
Zeruetan sartu.

*Franzisko...*

## ZURE SEMEAK GERA

---

ZURE SEMEAK GERA

NAI ZAITUGU MAITA

FRANZISKO IZAN ZAITE

BETI GURE AITA.

1. San Franziskoren Orden  
Irugarrenean  
Emen gaude baturik  
Alkartasunean.  
Mundu au igarorik  
Bizitza onean,  
Zerura igoteko  
Iltzen geranean.

2. Gaiztoak ondu eta  
Onak obetzea  
Gure bandera izan  
Bedi gurutzea,  
Eskapulayoakin  
Jantzirik kordoya,  
Beti egingo degu  
Bizitz zerukoya.

3. Alperrik egingo du  
Satanasek gerra,  
Bada beti garalle  
Aterako gera,  
Oinperatzeko oso  
Infernua bera  
Aski da Orden ontan  
Daukagun bandera.

4. Aita baten semeak  
Beti gera anai,  
Diogula alkarri  
Biziго ongi nai,  
Orden Santu onetan  
Aurkitzen geranoi  
Amorio au zaigu  
Ezagutzen nun nai.

5. Aitaren seme onak  
Bear degu izan,  
Bada ikusten gaitu  
Zer moduz gabiltzan,  
Aita goratu zagun  
Lurreko bizitzan,  
Il ondoan zerura  
Berak jaso gaitzan.

## Aita chit maite Franzisko Santua

*Aita chit maite Franzisko Santua,  
Amoriozko Serafin gartsua,  
Birtuteetan chit aurreratua,  
Izan zaite beti gu danon maisua.*

1. Bizi izan ziñan beartsu munduan,  
Pobreza beti maite izan zenduan,  
Aberats zera Jaunaren onduan,  
Sekula guztiko an orain zeruan.

2. Jesus daukazu beti biotzian  
Nai zenduke egon aren gurutzian  
Bost zauri eder bere irudian  
Ezarri dizkitzu zure gorputzian.

3. Gloria beti Aita Jainkoari  
Beste ainbeste bere Semeari  
Baita ere Bien maitetasunetik  
Sortua dan Espiritu Santuari.

## Zeru bidean lagun zaiguzu

Zeru bidean lagun zaiguzu  
Asisko Aita kutuna,  
zure laguntzaz lortu dezagun  
beti - betiko zoruna.

Jesus ganako maitetasunak  
ezarri zizkan bost zauri;  
gogo ta gorputz Franzisko Deunak  
Jesus berbera dirudi.

## Etsai guziak garaiturikan

*Etsai guziak garaiturikan  
Zure laguntzaz lurrean,  
Garaipenaren saria artzeria  
Zerura eldu gaitean,  
Zure abitu eta kordoa  
Dabilzkigunoi soñean,  
Nita Franzisko, lagun eiguzu  
Darabilkigun burrukan.*

1. Znre bandera artutzen degu Franzisko gure gidari,  
Nekea - neke jarraingoiogu Il arteraño berari,  
Fede biziaz begiratuaz  
Zeruko atsegüñari,  
Ta ez agurrik bein ere egíñaz  
Gaiztoen esamesari.
2. Bandera onek badaramazki Millaka seme zerura,  
Aien atzetik ara joatea  
Besterik eztegu gura,  
Orretarako gerra egitea  
Ez digu guri ardura  
Ez degulako iñon beldurrik  
Zure laguntza degula.
3. Liberalkeri kondenatu ta Masoneri inpernukoa  
Egin dezagun lurbiratzen  
Askar kentzeko modua,  
Bestela oiek enredatuko  
Digute oso mundua,  
Dotriña falsoz galeraziaz  
Kristau askori zerua.
4. Betozi bai, betoz nai dutenean  
Inpernutik deabruak,  
Betozi, bai betoz munduan diran  
Gaiztakeri ta gezurrak,  
Laguntzen digun artean, belintzat  
Zerutik zure eskuak,  
Beldurrik gabe arin ta erraz  
Dauzkagu azpiratuak.
5. Beragatikan anal ta arreba  
Tira banderaz ¡aurrera!  
Andrea, gizon bearisu ta aberatz  
Tira guztiok batera,  
Lege zarreko gerrari bikain  
Makabeoen antzera  
Eman arpegi etsaiari ta  
Atzera eragitera.
6. ¡Aurrera! bida anal-arrebak,  
¡Aurrera! gizon eta andre,  
¡Aurrera! zarrak eta gazteak  
Batere bildurrik gabe  
Iñorcho ere ezaitezte izan  
Igeslari ta kobarde,  
Etsaiak errez azpiraturik  
Zerura laister gerade.

## ZURE OÑETAN AITA

Zure oñetan Aita	Bañan penaz biotzak
Gauzkazu bildurik	Alde egin ezin du
Azken agurra - egiten	Zure bendeziñoak
Gustiz samindurik;	Alaitzen ezpadu
Agur gure begien	Zure bendezioa
Argi txit argia,	Alde egin baño len
Agur gure biotzen	Eman eiguzu, Aita,
Gozamen eztia.	Guztioi, bai emen.

¡AGUR FRANZISKO, AGUR!

¡AGUR SERAFIN GARTSUA, AGUR!

¡AGUR AITA MAITEA, AGUR, AGUR!

## AGUR GURE GIDARI

1. Agur gure gidari	2. Agur entzun itzatzu
Franzisko Santua	Gure erreguak,
Agur gure Asisko	Izan gaitezen orain
Serafin gartsua.	Zure antzekuak.
Agur bai gure Aita	Agur bai, ta sendotu
Gustiz doatsua,	Zure debotuak,
Asisen jayo eta	Izan gaitezen gero
Zerura aldatua	Danok zerukuak.

5. Agur, Aita maitea  
Aita chit gozoa,  
Betor gugana zure  
Bedeinkazioa.

## Aita San Antoni Paduakoari

Eskuan daukazu lore chit zuria  
Besuan daukazu zeruko Loria  
¡Lorien erdian zaude bada zu!  
Jesusen maitale garbia zerana  
Zu zera garbien zaindari laztana  
Apal auzpezturik aurrean, zure esku

Altsuaren billa emen gauzkazu,  
Eman, Antonio, biotz garbi bana,  
Jesusen maitale egin gaitzazu.

Ezin dezunik ez dago  
Antonio maitea,  
Besoan daukazulako  
Almenaren Jabea.

Zuk dakizu nola gauden  
Egarri ta beartsu,  
¡Zeruko giltza dezuna!  
Ur gozoen iturria  
Ainurrean daukazu.

## MISIOETAKO ABESTIAK

### **Jesus gure Jaun maite**

*Jesus gure Jaun maite  
amodiotsua,  
damu degu gustiok  
Zu ofenditua.*

1. Josirik ikustean  
gurutze orretan zu  
errukiz jai! biotza  
zenok urratuko ez du?  
baita baleuka ere  
arri biurtua. *Damu..*

2. Burutik beatzera  
gorputz eder ori  
zauri gordin egiñik  
dezu gustijori:  
jai! zorigaiztokoa  
gure pekatua. *Damu..*

3. Oñak esku ta alboa  
burniz zulaturik  
bizkar - aldea azotez  
dana zatiturik  
arantza gogorrakin  
josirik burua. *Damu..*

4. Ainbeste min gogorrez  
eririk zerala,  
artzai bat ardiaren  
ondoren bezela  
gure billa zabiltza  
errukiz urtua. *Damu..*

5. Jesus, zu gure billa  
ta guk zuri igesi  
gure bear zerala  
zu, Jauna, dirudi.  
¡O, gizon eskergabe  
gaizto zoratua! *Damu.*  
4. ¿Jauna zer galtzen dezu  
gu ezok galtzean?  
¿Gu gabe zu eziñan  
betiko guztian?  
¿zek zauzka ba guretzat  
orren laztantsua? *Da...*

7. Zu gabe ezin degu  
gauzarik batere,  
ezta iñola eman  
arnasa bat ere.  
Zu ondasun gustien  
sustrai ta burua. *Dam..*  
8. Au onela jakiñik  
çbizi izan naiz ni  
beti urrin zugandik  
zure iges beti?  
¡egiz nendukan lurruk  
oso itsutua! *Damu ...*

### Pekatarioik Ama

*Pekatarioik Ama*  
*Birjiña zaitugu,*  
*Zugan gure biotzak*  
*Guk ipintzen degu.*

*Egizu Zuk Maria*  
*gu gaitik erregu*  
*eriotzako orduan*  
*ez gaitezen galdu.*

1. Zure izen santua  
balia bekigu  
zure biotz onean  
uztea guk degu. *Egizu.*  
2. Bein ere iñor ez da  
ta bai Maria zu  
Ama izan ezkero  
dontzella gelditu. *Egi.:*

3. Jaungoikoaren Ama  
egiñik zakusgu  
arren, zuré semetzat  
ezagu gaitzazu.  
4. Zure Semeak gaitu  
zerutik billatu  
¿nola zuk naiko dezu  
gu gaitezen galdu? *Eg.*

5. Lagunzaiguzu bada ditzagun garbitu biotzak, pekatuan ez gaitezen lotu. *Egizu*

6. Pekatu egin degu orrez degu damu, argatik ez gaitezen inpernuan sartu. *Egizu*

7. Alperrik inpernuak artuko du damu orain gero ta beti zureak gera gu. *Egizu*

8. Zerurako bidea Birjiña zera zu ara joango danak billa bear zaitu. *Egizu*

## ATOZ PEKATARIA

*Atoz pekataria  
atoz eleizara  
Jaungoikoaren itza  
gogoz aditzeria.*

1. Ez egon pekatuan ez egon luzaro damu izan ez dezazun alperrikan gero.

2. Pekatuan ogera etziten bazera menturaz inpernuan esnatuko zera.

3. Misio santu onetan ontzen ez bazera, benturaz urrengoaan biziko etzera.

## SALBEA

Jaungoikoak gorde zaitzala Erregiña,  
Errukiz beteriko Ama,

**A.** Bizitza, gozotasun eta icharopen gurea,  
Jaungoikoak gorde zaitzala.

Zuri deyez gaude,

**A.** Ebaren ume erbestetuak,  
Zugana gatoz zizpuruz,  
Sentimentuz eta negarrez,

**A.** Negarrezko erri onetan.  
Ea bada bitarteko gurea,

**A.** Itzuli itzazu gugana,

Zure begi errukitsu oiek,  
**A.** Eta erbeste onen ondoren,  
Erakutsi zaiguzu Jesus,  
Zure sabeleko frutu,  
Bedeinkatua.

**AA.** ¡O biotz biguna!

**AA.** ¡O errukiorrá!

¡O Maria Birjiña gozoa!  
Erregutu ezazu gugatik,  
Jaungoikoaren Ama Santea.

**AA.** Merezi dezagun,

Irichitzea,

**A.** Jesukristoren eskeintzariak.

Amen Jesus.

## MEZA SANTUA

Kyrie eléyson. Kyrie eléyson. Kyrie eléyson.

Christe eléyson. Christe eléyson. Christe  
eléyson.

Kyrie eléyson. Kyrie eléyson. Kyrie eléyson.

## GLORIA

Glória in excélsis Deo. Et in térra pax homí-  
nibus bónæ voluntátis. Laudámus te. Benedíci-  
mus te. Adorámus te. Glorificámus te. Grátias  
ágimus tibi, propter magnam glóriam túam. Dó-  
mine Déus Rex Cœlestis, Déus Páter Omnipotens.  
Dómine Fili unigénite Jésu-Christe. Dómi-  
ne Déus, Agnus Déi, Filius Pátris. Qui tollis  
peccáta mundi, miserére nóbis. Qui tollis peccá-  
ta mundi, súscipe deprecationem nóstram. Qui  
sédes ad déxteram Pátris, miserére nóbis. Quó-  
niám tú sólus Sánctus. Tu sólus Dóminus. Tu só-  
lus altíssimus, Jésu-Christe. Cum Sancto Spí-  
ritu, in Glória Déi Pátris. Amen.

**CREDO**

Crédo in únum Déum, Pátre omni poténtem, factórem cæli et térræ, visibílum ómnium et in-visibílum. Et in únum Dóminum Jesúm Chrístum, Fílium Déi Unigénitum. Et ex Pátre nátum ante ómnia sæcula, Déum de Déo, lumen de lumine, Déum vérum de Déo véro. Génitum, non fáctum, consubstantiálem Pátri, per quem ómnia fácta sunt. Qui própter nos hómines, et própter nóstram salútem descéndit de cœlis. *Et incarnátus est de Spiritu Sáncto ex María Virgine: et Hómo fáctus est.* Crucifíxus étiam pro nóbis, sub Póntio Piláto, passus et sepultus est. Et resurréxit tértia die, secúndum scriptúras. Et ascéndit in cœlum: sédet ad désteram Pátris. Et iterum ventúrus est cum glória judicáre vivos et mórtuos: cùjus regni non érit fínis. Et in Spiritum Sántum Dóminum et vivificántem: qui ex Pátre Filio que procédit. Qui cum Pátre et Fílio simul adorátur, et cum glorificátur, qui locútus est per prophétas. Et únam, sánctam, cathólicam et apostólicam Ecclésiam. Confíteor únum baptísma in remissionem peccatórum. Et exspécto resurrectiónem mortuórum. Et vitam ventúri sæculi. Amen.

**SANCTUS**

Sánctus, Sánctus, Sánctus, Dóminus Déus Sábaoth. Pléni sunt cœli, et térra, glória túa. Hosánná in excélsis.

**AGNUS**

Agnus Déi, qui tollis peccáta mundi, miserere nobis. Agnus Déi, qui tollis peccáta mundi, miserere nobis. Agnus Déi, qui tollis peccáta mundi, donna nobis pacem.

## S A L V E

Regina, Mater misericordiæ,  
Vita, dulcédo et spes nostra, salve.  
Ad te clamámus éxsules filii Evæ.  
Ad te suspíramus geméntes et flentes  
in hac lacrymárum valle.  
Eja ergo, advocáta nostra, illos tuos  
misericórdes óculos ad nos convérte.  
Et Jesum benedictum fructum ventris  
tui nocis post hoc exsílīum osténde.  
O clemens,  
O pia, ó dulcis Virgo María.

℟. Ora pro nobis, Sancta Dei Génitrix.  
℟. Ut digni efficiámur promissiónibus  
Christi.

## SALVE, SANCTE PATER

Salve, sancte Pater, patriæ lux, forma  
Minorum, virtutis speculum, recti via,  
regula morum, carnis ab exilio, duc nos  
ad regna cœlorum.

℟. Ora pro nobis, beate Pater noster  
Francisce.  
℟. Ut digni efficiamur promissionibus  
Christi.

# ARKIBIDIA

---

Sakramentu guztiz Santuari.	3
Jesusen Biotz Maiṭagarriari	5
Ama Mariari.	9
Aita San Joseri	18
Franzisko Aitalen Gartsuari	19
Aita San Antonio Paduakoari	25
Misiñoetakuak	26
Latiñezkoak	29

*Imprimatur:*

*Victoriæ, 29 Octobris 1918.*

*Leopoldus, Epus. Victoriensis.*



